

Liburu lapurrak

GORKA ARRESE



LIBURUTEGI publiko ezberdinetatik ia 200 liburu ostu zituen 20 urteko mutil bat atzeman zuten Donostian joan den astean. Guk, lagun artean, *delinkuentea* deitzen diogu horri, baldin eta saketa eta sabotia asmorik gabe ebatsi izan baditu. Eta ere delinkuenteago (lagun artean), baldin eta frogatzen ez badu, ez bakarrik liburu horietatik zuzen-zuzenean diru etekinik ateratzeko xederik ez zuela, baizik eta *denak* irakurri dituela, eta *arte*z irakurri gainera.

Ez baita gauza bera liburutegian lapurtzea eta liburutegian lapurtzea.

Liburu ebasleak jakin behar luke —eta badaki ongi asko—, zenbait dendarik baimena ematen duela liburutegian lapurretara egiteko, baldin eta liburu ordaintzeko ahalbiderik eduki ez eta ostutzeko artez eta maitez irakurria izango bada. Liburu salzailea (Donostiako Konstituzio Enparantzan bazen bat behintzat), sensibela baita lapurretaren zilegitasunaren gainean.

Eta hori beti jakin izan dugu liburutegia guztiok: lapurretara ekintza ideologiko eta poetikoa dela: zeruaren eta infernuaren arteko ezkontza. Irakurketa bezain ekintza poetikoa eta ideologikoa: zeruaren eta infernuaren arteko ezkontza... Literatura bezala.

Baina literaturazaleok ez dakigu honako hau da: zenbat liburu eta eskuizkribu desagertu dira Euskaltzaindiaren Azkue Liburutegitik?, zenbat Urkijo Ondasunetik?, eta zenbat euskaltzain zendu eta bizik desagertarazi izan dituzte?, eta itzuliko al dizkigute noizbait?, edo geronek lapurtu beharko ote dizkigu, berriro denonak izan daitezke?

Eskerrak Txirrita zaleak behintzat jakinaren gainean daudel: «Lapur txikiak kasigatzeko nonahi badago kartzela, haundiak hori ikusten ditut paseoa dabilazala».

Publikotasunaren dogma

LONTXO OIHARTZABAL



IRAGANA da maiatzaren hogeitabost. Azken txanpak gerra-susmoak piztu dizkit barruan. Mehatxuak ere

izan dira han eta hemen, mehatxu lotsagarriak. Urte asko baino lehenago jakingo direnak. Historiak gertakari ugari argitzen du. Hau ere argituko du.

Lagunartean eta entzuten dudana da: publikotasunari eman behar omen zaio lehenatasuna. Nik, ordea, ez uste horrela. Kalitatea da oinarritzakoa. Eta erakunde publikoak hortaraxe behartuta daude: herriarron diruz bideratutako zerbitzuak kalitate onekoak izan daitezke sailazera, herriarrena baita dirua eta herriarregandik jaso bait dute eginkizun hori. Eta zerbitzu publikoak kalitatezkoak izan daitezke arauzko lege egokiak eman behar dira. Eta emandako legeek hori ahalbideratzen ezpadute, aldatu beharrekoko dira. Edo zerbitzu pribatuak indartu beharko bestela. Kalitatezko zerbitzuak zor zaizkigu herriarroi: publikoak edo pribatuak izan bigarren mailako arazoa da.

Eta nik uste Euskal Herriko eskola Publikoaren legeak ez du kalitatezko heziketa-biderik ahalbideratzen. Lehengoa txarra bazen, oraingoa parekoa, oinarrian ezpaita ezer aldatzen punturik garrantzizkoenetan. Nik, behintzat, horrela uste dut. Datoren urteetako ihardunak erakutsiko du.


●egin

Gezurrezko desafioa

Gai zehatzei dagokienez eztabaidak gutxi argitu bazuen, bere ekarpena are txikiagoa izan zen Euskal Herriari begira. Euskal Herriko milaka eta milaka telekustelentzat, Gonzalezek eta Aznarrek esandakoa Clinton-Perot eztabaida bat bezain urrutikoa izan zitekeen. Ez Euskal Herriak ez eta «Autonomien Estatuak» berak ere ez zuten arretarik merezi izan.

Hauteskunde hauek amerikar tankerako aurketa bihurtu nahi izatea hauteslegoari iruzur egitea da. Politika gaiak eguneroko bizitzaren duten ondorioetatik urruntzea da, hala nola arazo eta egoera anitz eta premiazkoak dena berdintzen duen goiko maila batean urtu nahi izatea. Alderdiabatasuna kasik saihestezina den gauzatzat auzketza amarru bat da nortasun nazionalak eta aniz-

HEMEROTEKA



MATTIN / ARGIA

tasun politikoa ezereztatzeko. Joera hori desbideratu eta engainua hausteko era bakarra hauteskunde hauek aukera guztien indarra eta nazio bakoitzaren desberdintasuna azaldu behar dutela ulertzea da.

EDITORIALA

●EL MUNDO

Ikastolak 'D' egunaren ondoren

Prozesuak ez du saldo onik utzi. Legebiltzarrak bere or-

dezkaritasuna zalantzan jarria ikusi du —legeak, esan dute, ez zeukan beharrezko gizarte adostasunik—. Alderdiak eta sindikatuak batzuen ez-agertze *ikusgai*-aren eta besteen artazi kontraesanekoaren artean mugitu dira. Konfederazioak horren eragina jasan du. Bere proiektuaren tasunari eusteko apustua irabazi egin du, ekinbide zibilar eta botere politikoaren arteko borrokarri ondo egin dio aurre, baina bere pragmatismo nabarmenak —gauza gehiegi sakrifikatu ditu, garrantasuna besteak beste, emaitzen amorekatik— guraso as-

ko beren metodo eta asmoak zalantzan jartzera eramanez ditu. Ikastola frankontan zatiketaren hazia ereinda gelditu da, euskaldun komunitatean EAJ bannatu zenetik ezaugutzen ez zen eran.

Ikastolak, hainbeste gauzatan herri honen onena islatzen dutenak, prozesu honetan gure deabru txarrenetako batzuez kutsatuta gelditu dira. Premiazkoa da gogoeta serio eta benazko bat egitea. Ezin dugu heziketa gerra bihurtu eta are gutxiago galdtu.

EDITORIALA

LUZENDARIARI

Aupa, Peio!!

Utzi gaituk, Euskal Herria gaituk borrokatzen espetxean hilda, hire herriatik oso urrun, ez nauk hitaz mintzatzeko erraza izango zelako, baina hire baimenarekin niri bidali dida guttun bat argitaratuko diat, azkena den edo ez etzakiat baina hik utzi gaituk egunean jaso diat:

Zer moduz habil lagun? Hau duk galdera hau eh, jakinda dakigun bezala gure Askatasuna mugatuta dagoela paretak medio, bainan gure barruan bizi den Askatasuna bizi-bizirik dagoela eta indarrarekin egunero bere nortasuna sendotzeko. Animo ba eta aurrera, egun eta gau borrokatzen gu izateko, gure nortasuna defendatzeko eta gure ideiak hobetzeko. Ba bai lagun, hire esku-titzak jasotzen dizkiat, batzuk behintzat bainan hik nireak ez nonbait, gainera azkenak marrazki tiki bat zeraman. Egia da ere azkeneko hilabete hauetan ez ditudala orri asko bete idazten bainan hire esku-titzari erantzuna beti hor izan da. Gaur ere larr negok zeren Egunkarian irakurri diat espetxez aldatu hauleta eta beharrik Alkalako helbidea badudala. Imajinatzen dut aspertu egonen zarela hainbeste bidaiarekin txakurrez inguratutik eta justiziaren paro-

dia hori soportatu beharrean. Nork esango digu guri aurrez 'demokrazia' zer den? La ostia, animale hoiek uste dute bere atzaparetan dutela Askatasunaren gilitza. Ez dira oharitzen duten gilitza bakarra, beren miseria eta frustrazioaren gilitza bakarra dela. Garbi dago pertsonak ez direla eta beraien arma efikazak faktore sikologikoko direla, bestela nola ulertu giza espainol guztiak onartu dezan eta modu berean txalotu egiten dituzten krimen guztiak Askatasuna-ri. Hobe duk preso izatea eta beraien etsaia, guttienez badakigu ez garelako ustelak eta ezta ere idiotak. Bai, rejak hor daude bainan nork esango du non dagoen kanpoa eta non barrura?

Beno lagun, ez naiz luzatuko kontu zahar hoiekin zeren egia esan jende horrek nazka ematen dit. Egia duk lehen gehiago zen gorrotoa eta gaur Nazka, pena, botatzeko gogoak. Beno, nik pentsatzen dudana bezala: «Que les den por culo», que así sea.

... Egun hauetan eztabaidarako ere aukera izan dugu eta beno gutti gora-behera denok dakigu nola dagoen egoera. Zer esan, ni pertsonalki niretzako preso bezala planteatzen naiz eta nire helburua preso bezala planteatzen naiz eta nire helburua preso Po-

litikoak dauzkan erresponsabilitateak indartzea da. Egunero borrokatu hobetzeko, ideiak lantzeko, maitasunarekin bizitzeko. Etsaia ez digu inongo oparirik egin behar eta zerbaiz lortzekotan orain arte egin dugun borrokaekin izango da. Hau garbi diat eta nire konsigna *jotake irabazi arte!!!*

... Oharu naiz zelako garrantzia daukan kanpoko jendearekin kontakto direkto bat edukitzeak zeren hainbeste denbora jendearekin egon gabe sentitu dut nola nire barruan ixten ari nintzela eta duk, preso bezala, behar dugu gure barrua zabaltu, berritu. Eta eguneko zehar hementxe nabil nire historia, lan pixka eta abarrekin, gogor sentitzen naiz eta inongo konplejoekin etsaia pixa egiteko goitti-behera. Gure Aitarene etxea maite dugu eta defendatuko dugu azkeneko kontsekuentzia arte, bai horixe!... Zer esan? Nere malkoak ixturten ari naizen momentu latz honetan, beti nere bihotzean izango haiz, ikusiko gaituk bitartean irabazi arte borrokan hik erakutsitako bidean, *ez adiorik, Peio!...*

JESUS M^a MENDINUETA FLORES

Euskal Preso Politikoa

GAIA JARRITA



Autokolpea Guatemalan

Herri osoan itzaropenak kolpe batek eramanean, gizon bakarran esku baitaude orain aginpide danak, deuseztatuaz demokraziak zitun arrasto bakanak; indarkerian beharrik ez du arrazoiak badukanak.

SEBASTIAN LIZASO

Egunkaria

Batzarde Parkeidea: 72564 E / Lege Dardaiua: SS 800/90



OJoren IKUSKATZEA BIDERATUA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: INAKI URREA

Zuzendariordea: LUZIAN ETXEZAHARRIETA

Zuzendari Komertziala: JUAN INAZO HARTSUAGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitate: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industriadela 01-02

Pabilioia / 20160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egolitza soziala, Publizitate eta Administrazioa: Antso

Jakiñua, 16-1 / 20010 Donostia / ☎: 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Arabak: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎: 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.eko / (Irindri dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskumak. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdia / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxatila, / 64105 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11